







# Kalean Kantuz







## **KALEAN KANTUZ goza dezagun!**

Euskal kantutegi zabal eta aberatsetik aukeratutako hainbat kantu jaso ditugu liburuxka honetan. Euskal Herriko herrialde eta euskalki desberdinetako kantuak ditugu.

Beraz, elkarrekin doinu zaharrak gogoratuz edo berriak ikasiz, une goxoak igarotzeko lagungarri izango zaigulakoan jarri du Hondarribiko Udalak bilduma hau guztion esku.

Hondarribiko Udal Euskara Zerbitzua



Euskara Zerbitzua

## Au r k i bi dea

<b>ABERRIAREN MUGAK</b>	<b>7</b>
<b>AGUR DONIBANE</b>	<b>8</b>
<b>AGUR JAUNAK</b>	<b>9</b>
<b>AGUR ONDARRABI</b>	<b>10</b>
<b>AGUR XIBEROA</b>	<b>11</b>
<b>AGURE ZAHARRA</b>	<b>12</b>
<b>AITORMENA</b>	<b>13</b>
<b>AITORREN HIZKUNTZ ZAHARRA</b>	<b>14</b>
<b>ALDAPEKO SAGARRAREN</b>	<b>15</b>
<b>AMAK EZKONDUNINDUEN</b>	<b>16</b>
<b>AMERIKETARA (NEVADA).JOAN NINTZEN</b>	<b>17</b>
<b>AMETS, AMETS EGIN</b>	<b>18</b>
<b>AMONA ZERGATIK?</b>	<b>19</b>
<b>ARBOLA GAINEAN</b>	<b>20</b>
<b>ATHARRATZEKO GAZTELUKO KANTUA</b>	<b>21</b>
<b>ATZO, ATZO</b>	<b>22</b>
<b>AZKEN DANTZA HAU</b>	<b>23</b>
<b>BAGA BIGA HIGA</b>	<b>24</b>
<b>BAGARE</b>	<b>25</b>
<b>BALDORBA</b>	<b>26</b>
<b>BARATZE BAT</b>	<b>27</b>
<b>BAUTISTA BASTERRETXE</b>	<b>28</b>
<b>BEDATSIAN DIRADE</b>	<b>30</b>
<b>BEGIAK FARREZ FARREZ</b>	<b>31</b>
<b>BERETERRETXEREN KANTOREA</b>	<b>32</b>
<b>BERMEOKO PORTUAN</b>	<b>33</b>
<b>DILIN-DALAN</b>	<b>34</b>
<b>DONOSTIAKO HIRU DAMATXO</b>	<b>35</b>
<b>EGIA DA</b>	<b>37</b>
<b>EGUN DA SANTI MAMINE</b>	<b>38</b>

<b>ERRIBERA</b>	<b>39</b>
<b>EUSKAL HERRIANEUSKARAZ</b>	<b>40</b>
<b>EZ DUT BILATZEN</b>	<b>41</b>
<b>EZKONGAIETAN</b>	<b>42</b>
<b>FURRA FURRA</b>	<b>43</b>
<b>GERNIKAKO ARBOLA</b>	<b>44</b>
<b>GOIZIAN ARGIA HASTIAN</b>	<b>46</b>
<b>GOIZUETAN/ TRABUKO</b>	<b>47</b>
<b>GORA TA GORA BETI</b>	<b>48</b>
<b>GREZIAKO ITSASONTZIA</b>	<b>49</b>
<b>GUK EUSKARAZ</b>	<b>50</b>
<b>GURETZAT</b>	<b>51</b>
<b>HABANERA</b>	<b>52</b>
<b>HAIZE HEGOA</b>	<b>53</b>
<b>HARA NUN DIRAN</b>	<b>54</b>
<b>HATOR, HATOR, MUTILETXERA</b>	<b>55</b>
<b>HAURRAK IKAS ZAZUE</b>	<b>56</b>
<b>HERRIKO FESTAK</b>	<b>57</b>
<b>IRUTEN ARINUZU</b>	<b>58</b>
<b>ITSASOA LAINO DAGO</b>	<b>59</b>
<b>ITSASOAN URAK HANDI DIRE</b>	<b>60</b>
<b>ITSASONTZI BATEN</b>	<b>61</b>
<b>ITURINGO AROTZA</b>	<b>62</b>
<b>IXIL IXILIK DAGO</b>	<b>63</b>
<b>JAUN BARUAK</b>	<b>64</b>
<b>JEIKI, JEIKI, ETXEKOAK</b>	<b>65</b>
<b>KAI ZAHARREKO BRIXARAN</b>	<b>66</b>
<b>KATALIN</b>	<b>67</b>
<b>KONTRAPAS</b>	<b>68</b>



<b>LILIBAT</b>	<b>69</b>
<b>LORETXOA</b>	<b>70</b>
<b>LORIAK UDAN IHINTZA BEZALA</b>	<b>71</b>
<b>MARITXU NORA ZOAZ</b>	<b>73</b>
<b>MENDIAN GORA</b>	<b>74</b>
<b>NAFARROA ARRAGOA</b>	<b>75</b>
<b>NERE AMAK BALEKI/ ZIBILLAK ESAN NAUTE</b>	<b>76</b>
<b>NERE SENTIMENDUA</b>	<b>77</b>
<b>OIAMA EUSKAL HERRIA</b>	<b>78</b>
<b>OIGUHEMEN</b>	<b>79</b>
<b>OILAR HARROXKOA</b>	<b>80</b>
<b>PELLO JOXEPE</b>	<b>81</b>
<b>PRIMADERAKO LILIAK</b>	<b>82</b>
<b>PRIMA EIJERRA</b>	<b>84</b>
<b>SALAMANKARA</b>	<b>86</b>
<b>TOPA DAGIGUN</b>	<b>87</b>
<b>TRISTE BIZINAIZ ETA</b>	<b>88</b>
<b>TXANTXIBIRI</b>	<b>89</b>
<b>TXORIA TXORI</b>	<b>90</b>
<b>TXORIÑOANORAT HOA</b>	<b>91</b>
<b>URTXINTXA</b>	<b>92</b>
<b>XALBADORREN HERIOTZEAN</b>	<b>93</b>
<b>XARMENGARRIA ZIRA</b>	<b>94</b>
<b>XOXOA</b>	<b>95</b>
<b>XURXURI BATEN GAINEAN</b>	<b>96</b>
<b>ZAZPIAK OIHAL BATETIK</b>	<b>97</b>
<b>ZENBAT GERA</b>	<b>98</b>
<b>ZEZENAK</b>	<b>99</b>
<b>ZURE BEGIEK</b>	<b>100</b>

## **ABERRIAREN MUGAK**

Testua: Joserra Gartzia - Doinua: Txomin Artola

Nire aberria lurra bezain zaharra da  
baina ez da lurra bakarrik  
haizeak bezala inguratzen nau eta  
lotzen, askatzen nauelarik.

Nire aberria suaren antzekoa da  
beti bera berria beti  
epeltzen nau kanpoan hotz dagoenean  
ta erretzen ere badaki

Aberriaren mugak euskararenak  
gure baitan daude gehienak  
euskara zabalduaz lau haizeetara  
zabalago egiten gara.

Nire aberria harrizko herria da  
hitzezkoa eta hitzezkoa  
altzairuzko txakolin, ardo zurezkoa  
eta hondar anonimoa.

Nire aberria burdin bihurria da  
oroimenean arindua  
itsaslaminen baten herdoilezko kantu  
etorkizunez fosildua.

Aberriaren mugak...

## **AGUR DONIBANE**

Testua: J. M. Arozamena - Doinua: F. López

Agur Donibane, itsaso ta mendiak,  
agur Donibane, nere bazter ferdiak.  
Kantuz aitzerat, amets eiterat  
maitiakin libertitzera  
Mariñel, urtzain, kontrandix, artzain,  
joaten ginen Larrun gainera...  
Agur Donibane, agur maitia gorputzez  
bainan amodioz ez, agur Donibane...

## **AGUR JAUNAK**

Herrikoia

Agur Jaunak, Jaunak agur, agur t'erdi (2)

Denak Jainkoak eginak gire,

zuek eta bai gu ere.

Agur Jaunak, agur, agur t'erdi,

hemen gire.

Agur Jaunak...

## **AGUR ONDARRABI**

Lurdes Zubeldia

Agur Ondarrabi nere sor lekuari  
agur itxas, mendi, agur kabi kantari  
Negarrez nua ni beharrez urruti  
panpoxa Ondarrabi, ni zure ameskari.

Agur, nere kabitxo, berdiñik gabeko,  
agur, nere usotxo, bañan ez betiko.  
agur, nere maitexo, ez naiz ez aztuko  
agur, nere amatxo laster etorriko.

Zure esnatzea, Guadalupeko ezkilak  
Zure lo artzea, olatu soñu ixilak  
Zure amestea zeruko izarrak  
Ama ikustea erritar guztiak.

## **AGUR XIBEROA**

P. Bordazarre - Etxahun Iruri

Sor lekhia ützirik gazte nintzalarik  
Parisen sarthü nintzan korajez betherik  
Plazerez gose eta bürian hartürik  
Behar niala alagera bizi  
Bostetan geroztik nigar egiten dit  
Xiberua zuri

### **Agur Xiberua**

**Bazter güzietako xokhorik eijerrena**

**Agur sor lekhia**

**Zuri ditit ene ametsik goxuenak**

**Bihotzan erditik**

**Bostetan elki deitadazüt hasperena**

**Zü ützig geroztik, bizi niz trixterik,**

**Abandonatürik**

**Ez beita herririk Paris ez besterik**

**Zü bezalakorik... (2)**

Palazio ederretan gira alojatzen  
Eta segur goratik aide freska hartzen  
Gaiñ behera so-ginik betzait üdüritzen  
Orhi gañen nizala agitzen  
Bena ez dira heben  
Bazterrak berdatzen txoriak khantatzen!

Ametsa, lagün nezak ni Atharratzerat  
Ene azken egüen han igaraitera  
Orhiko txoriaren khantüz behatzera  
Pharka ditzan nik egin nigarrak  
Hots, Xiberotarrak  
Aintzinian gora Eüskaldün bandera.

## **AGURE ZAHARRA**

Lluís Llach

Agure zahar batek zion bere etxe aurrean  
goizean goiz lantokira irteten nintzanean:  
Ez al dek, gazte, ikusten gure etxola zein dan?  
desegiten ez badugu, bertan galduko gera.

**Baina guztiok batera  
saiatu hura botatzera,  
usteltzen hasita dago-ta,  
laister eroriko da.  
Hik bultza gogor hortikan,  
ta bultza nik hemendikan,  
ikusiko dek nola-nola  
laister eroriko dan.**

Baina denbora badoa, nekea zaigu hasi,  
eskuak zartatu zaizkit, eta indarrak utzi.  
Usteltzen badago ere, karga badu oraindik,  
berriz arnasa hartzeko esaigun elkarrekin:

**Baina guztiok batera ...**

Agure zaharra falta da bere etxe ondotik,  
haize txar batek hartu ta eraman du hemendik.  
Haur batzuk ikusten ditut eta inguraturik,  
aitona zaharraren kanta nahi diet erakutsi:

**Baina guztiok batera ...**

## **AITORMENA**

### Hertzainak

Ez dira betiko garai onenak  
azken finean gizaki hutsak gara,  
barearen ostean dator ekaitza  
udaberri berririk ez guretzat.  
Denborak aurrera etengabian  
ta orain ezin eutsi izan ginana,  
rutinaren morroiak bihurtu gara  
lartzana lehen baino lehen aska gaitezana.

Ohartu gabe arrunt bilakatuta  
ohartu gabe heldu gara mugara  
mundua jausi zaigu gainera  
maitia lehen baino lehen aska gaitezana.  
Ez dakigu non dagoen hoberena  
bila dezagun beste lekuetan.

Bai, zin dagizut, ez dizudala inoiz gezurrik  
esan eta  
zaude ziur ezin izango zaitudala ahaztu inoiz,  
aitortzen dut izan zarela ene bizitzaren onena,  
baina orain maitia lehen baino lehen aska gaitezana



## **AITORREN HIZKUNTZ ZAHARRA**

Herrikoia

Aitorren hizkuntz zaharra nahi degu zabaldu  
munduaren aurrean gizonki azaldu,  
baldin gure zainetan odolik badegu  
euskaldunak euskaraz hitz egin behar degu.

Zein hizkuntza ederra euskera guria  
inun ez det aurkitzen beste bat hobia  
usai goxodun hizkuntz txukun ta argia,  
biraorikan ez duan hizketa garbia

Gora euskara maite zoragarriena  
euskaldunen artean maitagarriena.  
Munduan sortu zanik hizkuntzik zaharrena,  
gora ta gora euskaldunak eta gure euskara.

## **ALDAPEKO SAGARRAREN**

Herrikoia

Aldapeko sagarraren adarraren puntan  
puntaren puntan, txoria zegoen kantari.  
Xiruli ruli, xiruli ruli,  
nork dantzatuko ote du soinutxo hori?

Zubiburu zelaieko oihanaren zolan,  
zolaren zolan, lili bat bada beilari.  
Xiruli ruli, xiruli ruli,  
nork bilduko ote du lili xarmant hori?

Mende huntan jasan dudan bihotzeko pena,  
penaren pena, nola behar dut ekarri?  
Xiruli ruli, xiruli ruli,  
zuk maitea hartzazu ene pena hori!

## **AMAK EZKONDU NINDUEN**

Herrikoia

Amak ezkondu ninduen,  
hamabost urtekin, (2)  
senarrak bazituen larogei berakin,  
eta ni, neskatila gaztea,  
agure zaharrakin (2)

Ama, zertarako dut nik  
agure zahar hori? (2)  
hartu ta leihotikan jaurti behar dut nik,  
ai ene! ene leihotikan  
jaurti behar dut nik (2)

"Neska, hago isilikan,  
aberatsa dun hori, (2)  
pazientziz pasa hitzan urte bat edo bi,  
hori hilez geroztikan  
biziko haiz ongi." (2)

Deabruak daramala  
interesatua, (2)  
hau baino nahiago dut adin berekoa  
ai ene! hogeitau urteko  
gazte loratua (2)

## **AMERIKETARA (NEVADARA)**

### **JOAN NINTZAN**

Herrikoa

Ameriketara joan nintzan  
zentimorik gabe  
handik etorri nintzan maitia  
bost miloien jabe.

Txin, txin, txin, txin, diruaren hotsa,  
harekek ematen dit maitia  
bihotzian poza (2)

-----  
Nevadarat joan nintzen dirurikan gabe,  
handik itzultzekotan, maitia, bost miliunen jabe;

Ai, ai, ai, ai, ai, ametsaren lana,  
ait'amen erranetarik barna ibili bagina...

Urteak joan ziren on ta tzar nahaste,  
gure fortuna haiekin eta denak berriz haste;

Ai, ai, ai, ai, ai!...

Moltsa arhin dut bainan aberats gogoa,  
nere fortuna zare, maitia nere sosegua;

Ai, ai, ai, ai, ai!...

Begiak zorrotz eta memoria argi,  
ez den, ez den tokian, maitia aztaparrak garbi;

Ai, ai, ai, ai, ai!...

## **AMETS, AMETS EGIN**

Herrikoia

Amets, amets egin itsas gizona,  
amets, zure ametsa gerta leikela.

Berriz etorriko zera Ondarru'ko kaiera,  
han daukazu maitea, itxaroten dezuna,  
berriz etorriko zera, zure txaluparekin,  
han daukazu maitea ta bihotza.

Han daukazu maitea ta bihotza.

## **AMONA ZERGATIK?**

Lurdes Zubeldia

Amonaren magalean,  
bi begitxo salatari  
(udazkena udaberri)  
galderetan biziari.

Amona amona,  
amona zergatik xuria duzu ilea?

Zergatik?

Urtetako elurrak  
utzi dizkit hain xuriak

Amona, amona

Amona zergatik zaude hain ximurtua?

Zergatik?

Denboran margolariak  
margotu dizkit ximurak

Oi, amona maite, amona nerea

Udaberriko lorea

xume xamar agertzen da

Sustraian dauka gordea

harridura ta galdera

Amona amona non dezu, non dago?

Zure printze xarmanta? non dago?

Zeru zola iluntzean izarrak pixtu lanetan

Ta keinuka dabilena

hura da nere printzea

Amona ikusi den izarra keinuka

ta esan dit dela aitona.

## **ARBOLA GAINEAN**

Testua: B. Sarasola - Doinua: Pier-Pol Bertzaitz

Arbola gainean, xoria da kantatzen,  
kantatzen da eta, bazterrak inarosten  
Inarrosi eta, hostoa da erortzen,  
Euskal bihotza da, bilaiz egoiten.  
Bilaizi ondoan, han dira errabian,  
xiloka beltzian, handik elki nahian  
Handik elki eta, kantatzera abian,  
lagun zonbait bidian, ikusiko agian...  
La, la, la, la, la, la, la,...

Goiz argi eder bat, beti jeikitzen nunbait,  
nunbait jeiki eta, zorionean zonbait  
Bizi hobeago, denek lukete gogo,  
bainan bakarrik, ezin egin asmo.  
Haur baten sortzeko, sofritze beharrezko,  
bizi hobetzeko, legeen bihurtzeko  
Nor da abiatzen? Lagun zonbaiten biltzen,  
herriarren salbatzen, herioari kentzen...  
La, la, la, la, la, la, la,...

Gaur Euskal Herrian, zuhaina da landatzen,  
landatzen da eta, gero fruitu ekartzen  
Fruitu ekar eta, auzoa da kexatzen,  
Irautzalaria, madarikatzen...  
Jar giten ildoan, igeri izerdian,  
izerdian eta, lepo zainak hegian  
besoez eta botzez, hortzez eta haginez,  
lagun bat zorionez, ikusiko dugunez...  
La, la, la, la, la, la, la,...

## **ATHARRATZEKO GAZTELUKO KANTUA**

Herrikoia

Ozaze Jaurgainian bi zitroin doratü  
Atarratzeko Jaunak batto du galtatü;  
üken dü arrapostü eztirela huntü,  
huntürük direnian batto ükenen dü.

Portialala jua zite, ahizpa maitia,  
ingoiti horra düzü Atarratzeko Jauna,  
otoi erran izozü ni eri nizala,  
zazpi egün hoietan ohian nizala.

Klara, zuaza orai salako leihora,  
iparra ala hegua denez jakitera,  
iparra baldin bada goraintzi Salari,  
ene korpitzaren txerka jin dadila sarri.

Ama, juaen gira oro elkarrekin,  
etxerat jinen zira xangri handireki,  
bihotza kargatürük, begiak bustirik,  
eta zure alaba tunban ehortzirik.

Ama, saldu naizü biga bat bezala,  
bai eta desterratü, oi Españiala,  
aita bizi üken banü, ama zü bezala  
enündüzün ezkuntüren Atarratzeko Salala.



## **ATZO, ATZO**

Herrikoia

Atzo, atzo, atzo, atzo hil ziren hamar atso.  
Baldin ardoa merkatzen ez bada  
hilko dirade beste asko.  
Atzo, atzo, atzo hil ziren hamar atso.

Egun, egun, egun, egunez ja hil dira ehun  
baldin ardoa merkatzen ez bada  
gauetz hilgo dira berrehun,  
egun, egun, egunez ja hil dira ehun.

Bihar, bihar, bihar, bihar hilgo dira beste hamar,  
baldin ardoa merkatzen ez bada  
hilgo dira berrogeita hamar,  
bihar, bihar, bihar hilgo dira beste hamar.

Etzi, etzi, etzi, etzi hilgo dira hemeretzi  
baldin ardoa merkatzen ez bada  
hilgo dira ehun ta hemeretzi,  
etzi, etzi, etzi hilgo dira hemeretzi.

## **AZKEN DANTZA HAU**

Pantxoa eta Pello

Azken dantza hau, maitia zurekin  
Nahi zinduzket eraman nerekin.  
Baina gaurko xedia ezin daike betia  
Badakit nik ere bihar dela joaitia.

Bego pena hau itzuliren naiz,  
bai berriz Euskal Herrira.  
Bego urte hau etorriko naiz  
Betikotz zure ondora.

Azken dantza hau ez da sekulako.  
Zin egina dut zin egin betiko  
hemen gure lurrian bizi behar dudala.  
Hori ez bada hil hotz jar nadila.

Bego pena hau itzuliren naiz,  
bai berriz Euskal Herrira.  
Bego urte hau etorriko naiz  
Betikotz zure ondora.

## **BAGA BIGA HIGA**

Herrikoia - Doinua: M. Laboa

Baga, biga, higa, laga, boga, sega,  
Zai, zoi, bele, harma, tiro, pun!  
Xirristi-mirristi gerrena plat,  
Olio zopa, kikili salda,  
Urrup, edan edo klik ...  
ikimilikiliklik ...

## **BAGARE**

Testua: B. Gandiaga - Doinua: G. Mendibil

**Araban bagare, Gipuzkun bagera,  
Xiberun bagire ta Bizkaian bagara  
baita ere Lapurdi ta Nafarran (2)**

Guztiok gara euskaldun, guztiok anaiak gara  
nahiz eta hitzez berdin ez, bat bera dugu hizkera.

**Araban bagare, Gipuzkun bagera,  
Xiberun bagire ta Bizkaian bagara  
baita ere Lapurdi ta Nafarran (2)**

Herri bat dugu osatzen eta gure zabarkeriz  
ez daigun utzi hondatzen;  
Bagare, bagera, bagire, bagara  
euskera azkartzeko, oraintxe dugu aukera.

## **BALDORBA**

Testua: J. A. Urbeltz - Doinua: B. Lertxundi

Ezkil gabeko elizen eremu emankorra,  
giza murzuriko zure ardientzat.

Oi Baldorba! Oi Baldorba! eguzki eta haize idor;  
mahats-ardo ibai, galburuarena.

Lur gorri, harri landu, mailu eta xixelaren kantu.  
Gitarrazko alakiketan Armeniako  
kanon ahots urratuan.

Oi Baldorba! Oi Baldorba!  
esazu nor zen bidetik baztertu zintuen madarikatua!

Zure irriño erromanikoa erdi izoztu eta leloturik  
utzi zuen madarikatuaren  
izena nahi dut, izena nahi dut.  
Oi Baldorba! Oi Baldorba!  
ezazu nor zen bidetik baztertu zintuen  
madarikatua!.

Oi Baldorba! zutaz oroit eta  
zuri nagozu, zuri nagozu.  
Kantu bat laburra da eta pentsa zuk,  
esaten ez dizudan hartaz.

Oi Baldorba! Oi Baldorba!  
esazu nor zen bidetik baztertu zintuen madarikatua.

**BARATZE BAT**  
Pier - Pol Berzaitz

Hau da egün ederra  
mila txoriek kanta  
ziauri ene erregina  
besoak zuri ditizüt para.

**Baratze bat nahi deizüt egin**  
**Ametz sekretüenekilan**  
**Liliak egün jauntzi ederrenetan**  
**Mila kolorez dantzan bihotzetan.**

Gaü beltz ta sakonetik  
Elkitzen nüzü hoztürik  
Bihotza hain tristerik  
Zütaz hainen berantetsitürik.

**Baratze bat...**

Karrosa bat hor dügü  
Kanpoan gure haiduru  
Ez gal haboro denbora  
Hiskor beitago amodioa

**Baratze bat...**

Maitarzun berriari  
ilargiak dü argi  
emanen deio aski  
gük algar maita dezagün beti.

## **BAUTISTA BASTERRETXE**

Herrikoia

Bautista Basterretxe  
mutiko pijoa  
neri gurdi-ardatza, (2)  
ostuta dihoa.  
Beltzak eta zuriak  
izango dituzu,  
neri gurdi-ardatza, (2)  
emate ez baidazu.

Gurdi-ardatza ezik  
itai ta harria.  
Besteren behar gabe, (2)  
badauzkat nereak,  
Sega, poto, labaina,  
gainera bostortza,  
perian erosia, (2)  
badaukat zorrotza.

Nere idi-pareak  
dauzka zintzarriak,  
lepotikan zintzilik, (2)  
zildain jarriak.  
Gainera uztarriak  
ta kopetakoak,  
ontz urre gorri zaharrez (2)  
erositakoak.

Zerorrek nahiko gauza  
dezula diozu,  
baina gurdi-ardatza, (2)  
lapurtu didazu.  
Ordaindu behar dezu  
larrutik ederki,  
ardatza ez baidazu, (2)  
neri ekartzen aurki.

Buru gogorrak badu  
berekin kaltea  
ez dedan gauza nola, (2)  
nahi dezu ematea?  
Zentzuak galdurikan  
aurkitzea zerade,  
bestela behintzat horla, (2)  
ariko ez zinake.

Gezur ta abar zabilta,  
Bautista tranpean.  
Zu bezain gezurtirik, (2)  
ez da Euskal Herrian.  
Zure berri dakite  
inguruko denak,  
gordetzen dituzula (2)  
gauza besterenak.



## **BEDATSIAN DIRADE**

Bedatsian dirade zühainak loratzen  
Üdan ekhiarekin bazterrak berotzen  
Larrazkenian aldiz egünak laburtzen  
Negian haize hotza hezürretan sartzen.

### **Ez gal gure odol beroa Bizi bedi gure Xiberoa.**

Aspaldian bizi da gure popülia  
Zazpi probintzietan oso berexia  
Kantore zahar eta jauzi emailia  
Xoriñua bezala txülüla joilia.

### **Ez gal gure odol beroa ...**

Jenteek erraiten die mündian gisala  
Hau bezalako lekü ejerrik ez dela  
Bena gure xokua hüsten ari dela  
Eta segur hiltzeko pündian girela.

### **Ez gal gure odol beroa ...**

Tristeziaz besterik behar dügü heben  
Bizitzeko lotsarik ez dezagün ükhen  
Oi Xibero maitia ez zira galdüren  
Zure semek zütie bihar salbatüren.

## **BEGIAK FARREZ FARREZ**

Herrikoia

Begiak farrez farrez, bihotza negarrez (2)

Halaxet joaiten nintzan maitia, zukanik dolorez, ai,  
ai, ai, (2)

Xorinoa kaiolan egoiten da triste (2)

Ni ere ez naiz kontsolaturen zu ikusi arte ai, ai, ai  
(2)

Nere maite polita, zu non zira bizi (2)

Joan den aspaldi, ene maitia, ez zaitut ikusi, ai, ai,  
ai (2)

Arrosarikan ez dan arantzarik gabe (2)

Ez eta ere amodiorik penarikan gabe, ai, ai, ai (2)

## **BERETERRETXEREN KANTOREA**

Herrikoia

Haltzak eztü bihotzik ez gaztanberak hezurrik:  
enian uste erraiten ziela aitunen semek gezürrik. (2)

Bereterretzek oheti neskatuari eztiki;  
"Habil eta so egin ezan gizonik denez ageri" (2)

Neskatuak berhala, ikhusi zian bezala:  
hirur dozena bazabiltzala bortha batetik bestera. (2)

Jaun kuntiak berhala, traidore batek bezala:  
"Beretxerretx, aigü borthala: Ützüliren hiz berhala".  
(2)

"Ama, indazüt athorra, mentüraz sekülakua!  
Bizi denak orhit ükhenen dü Bazko-gaiherdi-  
ondua". (2)

Marisantzen lasterra jaun kuntiaren borthala!  
"Ai !, ei !, eta, jauna, nun düzie ene seme galanta?"  
(2)

"Hik bahiena semerik Bereterretxek besterik?  
Ezpeldoi altian dün hilik; abil, eraikan bizirik." (2)

Ezpeldoiko alaba, Margarita deitzen dena;  
Bereterretxen odoletik ahürkaz biltzen ari da. (2)

Ezpeldoiko bukhata, ala bukhata ederra!  
Bereterretxen athorretarik hirur dozena omen da.  
(2)

## **BERMEOKO PORTUAN**

Herrikoia

Bermeoko portuan goizeko ordu bixetan, (2)  
Ez da entzuten besterik, ez da entzuten besterik,  
ez da entzuten besterik... **Txo!**

Atrakaizu batela!

**Egixe da, egixe da, neuk ikusi dudalako...**

**Egixe da, egixe da, nik ikusikoa da,**

Lau aeroplano pasata, bat itsasora deutsi, (2)  
Ekarri, Donostiara ekarri, Donostiara ekarri,  
Donostiara... **Txo!**

Artzan enkalle ta itxi!

**Egixe da, egixe da, neuk ikusi dudalako...**

El aviador de Kankapur tambien quería volar (2)  
Ezto itxi trinkadoriek, ezto itxi trinkadoriek,  
ezto itxi trinkadoriek... **Txo!**

barrabaskeije ein barik!

**Egixe da, egixe da, neuk ikusi dudalako...**

Abustuan hamabixe, Patxi Bermiora etorri, (2)  
Ekarri, katxalotia ekarri, katxalotia ekarri,  
katxalotia... **Puf !**

Artzan usteldu ta itxi!

**Egixe da, egixe da, neuk ikusi dudalako (2)**

**Egixe da, egixe da, nik ikusikoa da.**

## **DILIN-DALAN**

Testua eta Doinua: Michel Labeguerie

Gure eliz'dorreko ezkila zaharrak  
Badauzka hedaturik berrien bakarrak  
**Dilin, dalan, dalan, din, dan**  
**Din-dan boieran, din, dan (2)**

Ene aitatxi zuten noizbat bataiatu,  
Ezkil zaharra baitzen alegrantziatu.  
**Dilin, dalan...**

Sortuz geroz gizonak zor du maitatzea,  
Bai kartsuki jo zuen haren ezkontzea.  
**Dilin, dalan...**

Bainan ezkil zaharra zertako brandaka?  
Etsai gaiztoa dator, lot, gizon, armaka.  
**Dilin, dalan...**

Arrats hor lazgarria, ezkil etsitua,  
Aitatxi gorputz da-ta gerla da galdua.  
**Dilin, dalan...**

Bainan ezkila mintzo, xo, dezagun adi,  
Haur ttipi bat sortu da, azkar bizi bedi  
**Dilin, dalan...**

Kanta beza ezkilak menderen mendetan!  
Kanta beza bizia Euskal Herrietan!  
**Dilin, dalan...**

## **DONOSTIAKO HIRU DAMATXO**

Herrikoia

Donostiako hiru damatxo Erreterian dendari (2)  
Josten ere badakite, baina ardoa edaten hobeki.  
Eta kriskitin, kraskitin, arrosa krabelin,  
ardoa edaten hobeki.

Donostiako hiru damatxo Erreteriko kalean, (2)  
egunez oso triste ibili, baina dantzatu gauean  
Eta kriskitin, kraskitin, arrosa krabelin,  
baina dantzatu gauean.

Donostiako neskatxatxoak kalera nahi dutenean:  
(2)  
Ama piperrik ez dago eta banoa salto batean.  
Eta kriskitin, kraskitin, arrosa krabelin,  
banoa salto batean.

Donostiako Gaztelupeko sagardoaren goxua (2)  
Hantxen edaten ari nintzala hautsi zitzaidan basua.  
Eta kriskitin, kraskitin, arrosa krabelin,  
basua kristalezkua.

Arrosatxoak bost hosto ditu, krabelintxoak hamabi,  
(2)  
Mari Josepa nahi duen horrek eska bezaio amari.  
Eta kriskitin, kraskitin, arrosa krabelin,  
eska bezaio amari.

Donostiako hiru damatxo hirurak gona gorriak (2)  
Sartutzen dira tabernara ta irtetzen dira hordiak  
eta kriskitin, kraskitin arrosa krabelin,  
irtetzen dira hordiak.

Donostiako hiru damatxok ein omen dute apustu  
(2)  
Zeinek ardo gehiago edanda, zein gutxiago  
mozkortu.  
Eta kriskitin, kraskitin, arrosa krabelin,  
zein gutxiago mozkortu.

Donostiarrak ekarri dute Getariatik akerra, (2)  
kanpandorrean ipini dute Aita Santutzat dutela  
Eta kriskitin, kraskitin, arrosa krabelin,  
Aita Santutzat dutela.

## **EGIA DA**

Herrikoia

Egia da, egia da, neuk ikusi dudalako.  
Egia da, egia da, porque lo he visto yo.  
Egia da, egia da, neuk ikusi dudalako.  
Egia da, egia da, parce que moi je l'ai vu.

Arratseko oskorritik goizeko oskorriraino  
gauean ez da entzunen ez da entzunen gauean  
gauean ez da entzunen sorgin musika baino.

Egia da, egia da, neuk ikusi dudalako.  
Egia da, egia da, porque lo he visto yo.

Gezurra dirudi baina sano ta fresko gaude.  
Musika da denboraren denboraren musika da  
musika da denboraren sekretuaren jabe.

Egia da, egia da, neuk ikusi dudalako.  
Egia da, egia da, parce que moi je l'ai vu.

Gazte odola duenak festa eta algara,  
hamabost urtez oraindik oraindik hamabost urtez  
hamabost urtez oraindik hasi berriak gara.

Egia da, egia da, neuk ikusi dudalako.  
Egia da, egia da, parce que moi je lai vu.  
Egia da, egia da, neuk ikusi dudalako.  
Egia da, egia da, porque lo he visto yo.



## **EGUN DA SANTI MAMINA**

G. Aresti

Egun da Santi Mamiña, benetan egun samiña.  
Goiko zeruan gorde dezala luzaro neure arima... (2)

Esaten dizut egia hau ez da usategia;  
erroi artean izan nitzaden benetan ausartegia.

Itsas aldean izarra, hari begira lizarra;  
euskara salbo ikusi arte ez dut kenduko bizarra.

Kantatu zuen oilarrak, argitzen dira belarrak;  
Ageda gure martiriari moztu zizkaten bularrak.

Bularrak moztu zizkaten eta Euskalerrak diotsa,  
solomu luze dultzerik gabe eman zaidazu bihotza.

Eman zaidazu bihotza eta ken berriz nahigabeak.  
Esan noiz garen izanen gure etorkizunen jabeak.

## **ERRIBERA**

Herrikoia - Doinua: B. Lertxundi

Erribera Erribera, zure landen zabalera  
ortzi-muga den hartan mugatzen da.

Zure lur emankorretan ixurtzen diren asmoak  
gogotsu hartuko ahal ditu lur gozoak.

Zure gaztelu zaharrek gorderik duten aintzina  
hats tristetan mintzo da haren mina.

Horma zahar arraituetan xoriak dira kantatzen  
mendetako lo geldia salatzen.

Nafarra anai zaharra kondairaren lehen sustarra  
bego higan arbasoen amets hura.

## **EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ**

Oskorri

Euskal Herrian euskaraz nahi dugu hitz eta jolas  
lan eta bizi euskaraz eta hortara goaz,  
bada garaia noizbait dezagun guda hori gal edo  
irabaz.

Zabal bideak eta aireak gure hizkuntzak har dezan  
arnas,  
bada garaia noizbait dezagun guda hori gal edo  
irabaz.

Euskal Herrian euskara hitz egiterik ez bada  
bota dezagun demokrazia zerri askara  
geure arima hiltzen uzteko bezain odolgalduak ez  
gara.

Hizkuntza gabe esaidazue nola irtengo naizen  
plazara,  
geure arima hiltzen uzteko bezain odolgalduak ez  
gara.

Euskal Herri euskalduna irabazteko eguna  
pazientzia erre aurretik behar duguna,  
ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten  
gaituena?

Zer Euskal Herri litzake bere hizkuntza ere galtzen  
duena.

Ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten  
gaituena?

## **EZ DUT BILATZEN**

Testua: Manex Pagola - Doinua: Pello eta Patnxa

Ez dut bilatzen aberatsen  
bidetarik ibiltzea!  
Ez dut bilatzen haundiekin  
nik jokoetan artzea!  
Jende gehienak bezala sortua  
Ait´amen lurrari lotua!  
Behardunekin bizitzea:  
hori da neure hautua!

Jende oro dira behardun  
ukanik ere ontasun ...  
Baina aberats guti jartzen  
jende xehearen lagun!  
Aberatsen eskua urrun heltzen,  
Zer nahi nun nahi tinkatzen...  
Gure herriaren geroaz  
dute tratu merk egiten!

Otsoak bordan otsoekin,  
gaixo bildotsak hoiekin!  
Bainan bordazainak nun dira?  
Ager ditela argira!  
Euskal Herria euskaldunendako:  
berek erran behar hau nolako!  
gaurko gidariek baitute  
hori onartu beharko!

## **EZKON GAIETAN**

J. M. Iparragirre

Ezkongaietan zerbait banintzan  
ezkondu eta ezer ez (2)  
eder zalea banintzan ere  
aspertu nintzan ederrez  
nere gustua egin nuen ta  
orain bizi naiz dolorez

Nere andrea andre ederra  
ezkondu nintzan orduan, (2)  
mudatuko zen esperantzarik  
ere bat ere ez nuan,  
surik batere baldin badago  
maiz dago haren onduan.

Zokoak zikin, tximak jario,  
haurra zintzilik besoan (2)  
adabaki desegokiagorik  
gona zahar haren zuloan  
hiru txikiko botila handia  
dauka bere alboan.

Nere andrea goiz jeikitzen da  
festara behar danean (2)  
buruko mina egiten zaio  
hasi baino lehen lanean.  
Zurekin zer gertatuko zan  
nik bildurrik ez nuan!

## **FURRA FURRA**

Herrikoia

**Furra, furra, fandangoa,  
hortxe duzu fandangoa geure gustukoa.**

Gaur goizean jeiki naiz suerte onean,  
tanke bat topatu dut neure kafesnean;  
ez dakit zer daukagun bake ala gerra  
bainan nik badaezpadan egin dut puzkerra.

**Furra furra...**

Zerbait egitekotan zuzen eta artez  
zorri bat garbitu dut ur pistola batez,  
orain galdurik nago beldurrez beteta  
muniziorik gabe gelditu naiz eta.

**Furra furra...**

Neure arma bakarra dut akordeoia,  
hauspoari eraginez dirudi leoia;  
eskua jaten badit on egin dezaion  
Cervantsei holakorik gertatu zitzaion.

**Furra furra...**

Eta orain banoa berriro ohera,  
bila ez badatozkit lolo egitera;  
bihar ikusiko da zer dagoen berri,  
jakintsuenak ere ezin du igerri.

**Furra furra...**

## **GERNIKAKO ARBOLA**

J. M. Iparagirre

Gernikako arbola da bedeinkatua  
Euskaldunen artean guztiz maitatua.  
Eman ta zabal zazu munduan frutua  
adoratzen zaitugun arbola santua

Mila urte inguru da esaten dutela  
Jainkoan jarri zuela Gernikan arbola.  
Zaude bada zutikan orain da denbora  
eroritzen bazera arras galdu gera

Ez zera eroriko arbola maitea  
baldin portatzen bada Bizkaiko Juntia.  
Laurok hartuko degu zurekin partea  
pakian bizi dedin euskaldun jendia.

Betiko bizi dedin Jaunari eskatzeko  
jarri gaitezen danok laister belauniko.  
Eta bihotzetikan eskatu ezkerro  
arbola biziko da orain eta gero.

Arbola botatzia dutena pentsatu  
Euskal Herri guztian denak badakigu.  
Ea bada jendia denbora orain degu  
erori gabetanik eduki behar degu.

Beti egongo zera udaberrikoa  
lore aintzinetako mantxa gabekoa.  
Erruki zaite, bada, bihotz gurekoa  
denbora galdu gabe emanik frutua.

Arbolak erantzun du kontuz bizitzeko  
eta bihotzetikan Jaunari eskatzeko,  
gerrarik nahi ez degu pakea betiko,  
gure lege zuzenak hemen maitatzeko.

Erregutu diogun Jaungoiko Jaunari  
pakea emateko orain eta beti.  
Baita indarra ere zerorren lurrari  
eta bendizioa Euskal Herriari.



## **GOIZIAN ARGIA HASTIAN.**

P. Bordazarre - Etxahun-Iruri

Goizian argi hastian,  
ene leiho-hegian  
txori bat pausatzen da eta  
goratik hasten kantatzen.

**Txori eijerra, hain alagera,  
entzüten haidanian  
ene bihotzeko tristüra  
laister duak aidian (2)**

Ene txoririk maitena,  
zeren jin hiz nigana  
iratzarrazi nialarik  
ametsik eijerrena.

**Jinik hain goizik, uste hian hik  
baniala hanitx pena?  
ez, ez, habil kontsolatzera  
malerusago dena (2)**

## **GOIZUETAN / TRABUKO**

Herrikoia - Doinua: M. Laboa

Goizuetan bada gizon bat deitzen zaio "Trabuko"  
Hitzak ederrak, bihotza paltso sekula etzaio faltako  
egin dituen dilijentziak berari zaizko damuko.

Ondo oroitu hadi zer egin huan Elaman.  
difuntu horrek izandu balu aidekorik Lesakan  
orain baino lehen egongo hintzen ni orain nagoen  
atakan.

Nere andreak ekarri zuen Aranaztikan dotea,  
hobe zukean ikusi ez balu Berdabioko atea,  
orain ez zuen edukiko dadukan pesadunbrea.

Nere buruaz ez naiz oroitzen zeren ez naizen  
bakarra  
hazitzekoak hor uzten ditut bi seme ta hiru alaba  
Jaun zerukoak adi dezala hoi en amaren negarra.

## **GORA TA GORA BETI**

Herrikoia - Doinua: Oskorri

**Gora ta gora beti, haik gora Lapurdi!  
Euskerak bizi gaitu eta bizi bedi.**

Gorantza doa agudo kapitala  
eta Lapurdi beti dago apala,  
aldrebesturik dago mundu zitala,  
konformatzen ez bagara ze pekatu mortala!

Gurea ez da bizi-modu normala  
lurra lantzeko haitzurra eta pala,  
lanaren truke kobratzen erreala.  
Benetan da miserable euskaldunon jornalala.

Munduan ezin bizi daiteke hala,  
merkatuetan dena gora doala,  
etxera eta zopa guztiz argala,  
kriseiluen oiloa ez da postre formala.

Obrero eta nekazari leiala,  
zuena ez da errenta liberala.  
Diru zikinak putre motzak bezala  
botatzen dizu gainera hortxe bere itzala.

Jabeek dute kontzientzi zabala,  
kaskatu dute gure lurren azala,  
baina Lapurdi ez da hain zerbitzala;  
burruka garbian dago hori da printzipala.

## **GREZIAKO ITSASONTZIA**

Pello eta Patnxa

Itsaso gaindi ikusten baduzu  
gure gogoan daraman ontzia  
ez zazu pentsa galduta doanik  
argitzen baitu goizeko eguzkia

Hainbeste amets negar ta desio  
ez du ekaitzak hondora botako  
salbatuko da goizeko ontzia  
kaiaren bila hegaka joateko

Arraunberriek eramango dute  
bide zaharretik askatasunera  
oial zuriek haizea bildurik  
gure arnasa biltzen den batean

Ez du ekaitzak hondora botako  
salbatuko da goizeko ontzia

## **GUK EUSKARAZ**

Urko

**Guk euskaraz,  
Zuk, zergatik ez? (2)**

Euskara putzu sakon eta ilun bat zen,  
eta zuek denok ur gazi bat  
atera zenuzten handik nekez (2)

**Guk euskaraz,  
Zuk, zergatik ez? (2)**

Orain zuen birtutez zuen indarrez  
Euskara itsaso urdin  
eta zabal bat izanen da  
eta guria da.

**Guk euskaraz,  
Zuk, zergatik ez? (2)**

Nik eta zuk egin behar dugu  
Euskal Herria gure buru.

## **GURETZAT**

Guretzat berdin dira astea eta jaia,  
lana bihurtzen dugu kantatzeko gaia.  
Har ditzagun eskuan giltza eta laia,  
gariz eta burdinaz lantzeko Bizkaia.

Gitarrarekin aire berri bat  
daramagu kantuz egun,  
abesti libre eta leiala,  
prestu eta noblezadun;  
haren medioz zer garen, ongi  
izan gaitezen ezagun,  
herri langile nekazaria  
hala defendi dezagun.

### **Guretzat...**

Gure gogoaz ez bedi arren  
kantatu honekin akaba,  
gure ekintza izan dadila  
gure hitzaren alaba.  
Egun batean esan dezagun  
ez "hala biz" bai "hala da",  
nekea eta lana dirade  
zorionaren alaba.

### **Guretzat...**

Bide honetan baldin bagoaz,  
jakin dezagun zergatik,  
zin egin behar dugu zintzoki,  
bakoitzak duenagatik;  
sinestedunek dudarik gabe  
bere Jaungoikoagatik  
eta sineste gabeek berriz  
bere ohoreagatik.

### **Guretzat...**

## **HABANERA**

X. Lete

Berriro itzuliko balitz iragan denbora arrotza  
berdin kontsumi nezake banilla gozo artean,  
itsaso urrun batetan irudimena galdurik  
udaberriko euritan larrosak pizten ikusiz.

Osaba komertzianterik ez nuen izan Habanan,  
pianorik ez zegoen bizi nintzen etxe hartan,  
neskatxen puntilla fiñak udako arratsaldetan,  
errosario santua neguko gela hotzean.

Ezpainek gordetzen dute ezpain bustien gustoa  
desiozko hotzikaran etsipenaren tamalez,  
gaua zelatan dakusat kontzientzia bilutsik  
badoaz orduz geldiak gogorapenen hegalez.

**Jaio giñen, bizi gera  
ez dugu ezer eskatzen  
itsasontzia astiro  
kaiatik ari da urruntzen.  
Antillak zintzilik daude  
argazkien paretetan  
karta bat idatziko dut  
norbaitek erantzun dezan.**

Tabako, ron ta kanelaz girotutako arratsetan  
algarak entzuten ziren Habanako putetxetan,  
abanikodun mulatak gauari haize egiten  
musiken aide nagiek odola erretzen zuten.

**Jaio giñen, ...**

La-la-la la-la-la...

## **HAIZE HEGOA**

Herrikoia

Haize hegoa, gau epela, ilargiaren argi,  
mutxurdinak leihoetan teilatuan katu bi  
Bide ertzean zenbait kanta gau erdiz arnoari  
Hargaineko sorgin zaharrak keinuka ilargiari



## **HARA NUN DIRAN**

J. M. Iparragirre

Hara nun diran mendi maiteak; hara nun diran  
zelaiaik!.

Baserri eder zuri-zuriaik, iturri eta ibaiak.

Hendaian nago zoraturikan, zabal-zabalik begiak,  
hara, Espainia! lur hoberikan ez da Europa guztian.

Gero pozik bai Donostiara Okendoarren lurrera,  
zeru polit hau utzi beharra nere anaiak hau pena!  
Irutxulueta maitagarria lore tokia zu zera,  
Veneziaren grazi guziak gaur Donostian balira.

Oi, Euskal Herri, eder maitea! hara hemen zure  
semea,  
bere lurrari mun egitera, beste gabe etorria.  
Zuregatikan emango nuke pozik, bai, nere bizia;  
beti zureztat hil arteraino gorputz ta arima guztia.

Agur bai, agur Donostiako nere anaia maitiak,  
Bilbaotikan izango dira aita zaharraren berriak.  
Eta gainera hitz neurtuetan garbi esanez egiak,  
Sudamerikan zer pasatzen dan jakin dezaten  
herriak.

## **HATOR, HATOR, MUTIL ETXERA.**

Herrikoia

Hator, hator, mutil etxera,  
gaztainak ximelak jatera,  
Gabon gaba ospatutzeko  
aitaren ta amaren onduan.  
Ikusiko dek, aita barrezka,  
ama be poz ta atseginez.  
Eragiok, mutil, aurreko danbolinari,  
gaztainak erre artian,  
gaztainak erre artian, txipli, txapla, pun.  
gabon gaba pozik igaro daigun.

## **HAURRAK IKAS ZAZUE**

Herrikoia

Haurrak ikas zazue, eskuaraz mintzatzen,  
ongi pilotan eta, oneski dantzatzen (2)

**Aire ttun ttiki ttun aire ttun aire.. (3)**

Gure kantu zaharrak, kontserba ditzagun,  
aire politagorik ez da sortu inun (2)

**Aire ttun ttiki ttun aire ttun aire.. (3)**

Euskaltzaleak gera, neska-mutil gazte,  
poza ta alaitasuna guk ditugu maite (2)

**Aire ttun ttiki ttun aire ttun aire.. (3)**

Eperrak kantatzen du goizian goizetan  
ez asko fiatzeko mutilen hizketan (2)

**Aire ttun ttiki ttun aire ttun aire.. (3)**

Fiatzen bazerade mutilen hizketan,  
eroriko zerade harri labanetan (2)

**Aire ttun ttiki ttun aire ttun aire.. (3)**

## **HERRIKO FESTAK**

Herrikoia

Herriko festak ziran biharamonian,  
berak nahi zuten txoko, txoko batian,  
harri txabal-txabal baten gainian,  
ari ziran, ari ziran trukian.

Lau atso: hiru neskazahar,  
bat alarguna,  
jarririk itzalian,  
harri txabal-txabal baten gainian,  
ari ziran, ari ziran trukian.

Hasi ziradenian kartak partitzen,  
eta gainera tantuak kontatzen.  
Trun jota, ta Iñaxik txota,  
Mariak txaldun, Errufinak hirua.  
Mari Martin, txoratu al zain burua?  
lauarekin hiruairen keinua.

Neska egon hadi ixil-ixilik  
hik ez den ikusi nere keinurik!  
Tanta bat edanez gero,  
begiak dir-dir, ezin egon ixilik  
edan ezan, edan ezan gogotik,  
katilua, katilua beterik.

## **IRUTEN ARI NUZU**

Herrikoia

Iruten ari nuzu, kilua gerrian,  
ardura dudalarik (2) nigarra begian.

Nigar egiten duzu, oi suspirarekin?  
kotsolaturen zira, (2) bai denborarekin...

Ezkontzen baldin bazira mariñelarekin,  
xardina janen duzu (2) makailuarekin.

Ezkontzen baldin bazira mandozaiñarekin,  
arraina janen duzu (2) olioarekin.

Ofiziale seme, kolore gorria,  
Baigorriko neskatxen (2) karesatzailea.

Nik ez dut karesarik, bertzek ez dutenik;  
berak dabilta ondotik, (2) zer eginen dut nik?

Ezkonmina dutala, zuk omen diozu...  
nik ez dut ezkonminik (2) gezurra diozu.

Ezkonmina dutenak seinale dirade:  
matel-hezurak idor (2), koloreak berde.

## **ITSASOA LAINO DAGO**

Testua: F. Artola - Doinua: herrikoia

Itsasoa laino dago, Baionako barraraino  
Nik zu zaitut maitiago arraintxoak ura baino.

Itsas aita ur alorra, ama lurraren senarra,  
Bizi iturri hilezkorra gure poza ta negarra.

Hondarribi itsas herri, lamiaren amets kabi  
Mariñelen bizi toki, maitietan maitagarri.

## **ITSASOAN URAK HANDI DIRE**

J. Lekuona

Zazpi senideko famili batean arotza zen gure aita  
gure herriko alkate ez izan arren, lan egiten zuena.

**Itsasoan urak handi dire, murgildu nahi  
dutenentzatgure herriko lanak handi dire, astun  
dire, gogor dire, zatiturik daudenentzat.**

Markatzen ari diren bide nabarra ez da izango  
guretzat, lehengo sokari ezarririk datorren oztopo  
bat besterik.

**Itsasoan...**

Hainbeste mendetako gure morrontzak  
baditu mila tankera  
eta zuhur aukeratzen ez badugu  
bertan galduko gera.

**Itsasoan...**

## **ITSASONTZI BATEN**

### **Itsasontzi baten Euskal Herritik kanpora naramate eta ez dakit nora (2)**

Agur nere ama  
laztan goxoari  
Agur nere maite politari  
ez egin negar  
etorriko naiz  
egunen baten  
pozez kantari

### **Itsas ontzi...**

Agur senideak  
agur lagunari  
agur Euskal Herri osoari.  
Ez egin negar  
etorriko naiz  
egunen baten  
pozez kantari.

Gora Euskal Herri  
Gora Euskal Herri  
Gora Euskal Herriari.



## **ITURINGO AROTZA**

Herrikoia

Ituringo arotza, Erramun Joakin,  
Hasarre omen zaude zeren dugun jakin,  
Santurik ez daiteke fiatu zurekin:  
San Kristobal urtuta joareak egin.

Arotzak erran dio bere andreari:  
"urtu behar dinagu; ekarran santu ori."  
"gizona, nora zoaz? bekatu da hori."  
"etzionagu erranen sekulan inori."

Iturringo joareile, Ramuntxo Joakin,  
Hasarre omen zira zeren dudan jakin.  
Konfesa zaite ongi erretorarekin:  
Ez dute zer fidatu santuek zurekin.

Kobrezko santurikan inon bazarete,  
Egoten al zarete hemendik aparte:  
Baldin arotz horiek jakiten badute,  
joareen egiteko urtuko zaituzte.

## **IXIL IXILIK DAGO**

Herrikoia

Ixil ixilik dago kaia barrenean  
Ontzi txuri polit bat, uraren gainean.  
Goizeko ordu bietan esnatutzen gara,  
Arrantzaliak beti joateko urrutira.

Pasatzen naizenian zure leihopetik  
Negarra irtetzen zait begi bietatik ... (2)

Zergatik (5) negar egin?  
Zeruan izarra dago itsaso aldetik ... (2)

Bat, bat, bat, bart parrandan ibili, bart parrandan  
ibili,  
Bi, bi, bi, ez naiz ondo ibili, ez naiz ondo ibili.  
Hiru, hiru, hiru, kolkoa bete diru, kolkoa bete diru,  
Lau, lau, lau, sardina bakalau.

Anteron txamarrotie, sinkerren bibotie,  
Haretzek ei dauka, ei dauka, preso tximinoie ... (2)

Hau dek, hau dek, hau dek umorea,  
Kontsolatzeko, kontsolatzeko euskaldun jentia.

Kalean gora, kalean behera, kalean gora zezena,  
Ai, ai, ai, ai,  
Kalean gora, kalean behera, kalean gora zezena...

## **JAUN BARUAK**

**Jaun baruak aspaldin**  
**xederak hedatü zütin, (2)**  
txori eijer bat atzaman dizü  
Paubeko seroren komentin,  
orai harekin biziren düzü  
**aspaldian gogun beitzin (2)**

**Xedera baliz halako**  
**merkatietan saltzeko, (2)**  
Ziberuako aitunen semek  
eros litzazkie oro,  
halako txori eijertto  
**zunbaiten atzamaiteko (2)**

**Igaran apirilaren bürian,**  
**armadaren erdian, (2)**  
züntüdan bihotzian,  
armak oro eskian;  
present espiritian,  
**manka besuen artian (2)**

**Jauna maite banaizü,**  
**erraiten düzün bezala (2)**  
kita ezazü, kita ezazü  
Erregeren zerbütxia  
eta maita herria,  
**üken dezadan plazera (2)**

## **JEIKI, JEIKI, ETXEKOAK**

Herrikoia

Jeiki, jeiki etxeakoak, argia da zabala,  
Argia da zabala. (2)

Itsasotik mintzatzen da zilarrezko tronpeta  
Bai eta ere ikaratzen olandresen ibarra  
Olandresen ibarra. (2)

Jeiki, jeiki etxeakoak, argia da zabala,  
Argia da zabala. (2)

Itsasotik hurbiltzen da untzi bat kargatua.  
Gaitezen denak mentura, haren atakatzera  
Haren atakatzera. (2)

Jeiki, jeiki etxeakoak, argia da zabala,  
Argia da zabala. (2)

Itsasoan agiri da  
Argi gozo biguna  
Bere aurrean beldurtuta  
Ihes doa iluna. (2)

## **KAI ZAHARREKO BRIXARAN**

Lurdes Zubeldia

Kai zaharreko brixaran,  
itsaso aurrean  
kilin kulun batelak dantzan  
eguzki ditziratan.

Zeru bat baldin bada Hondarribi da ate  
non aurkitu guzada? Kai Zaharrear ez bada.

Han urrun urrutian,  
zeru ta itsasoa elkartzen dira.  
hantxe dago nere maitea atuna arrantzan.

Etzakela marloia, kanta txistu motela,  
ebatsi nak gozada trukatzuz truaran

Uxa hadi itxaso barrena,  
nere maiteagana  
Kantaiok hire kanta itsusia  
enbata datorrela ta hemen  
nagoela Kai Zaharrear.

## **KATTALIN**

Herrikoia - Oskorri - J. Mirande

Etxe txiki txukun baten zure aitetamekin  
zinen bizi, zintzo bizi, ene maite Kattalin.

**Ene maite, ene maite  
ene maite Kattalin  
sekulako ta betiko  
galdu zaitut Kattalin.**

Baina eder zinen zinez zine izar bat bezin  
ile gorri (baita zorri) zuk bazenun Kattalin.

**Ene maite...**

Ibaiera zinen joaten zure ahate beltzekin  
goiz batean, bat batean ito zinen Kattalin.

**Ene maite...**

Hilerrian bada lore euzki lili, krabelin  
zu zaituzte badut uste ongarrizat, Kattalin.

**Ene maite...**

## **KONTRAPAS**

Garaziko herria  
benedika dadila  
euskarari eman dio  
behar duen tornuia.

Euskara, euskara,  
ialgi hadi plazara.

Bertze jendek uste zuten  
ezin eskriba zaiteien  
orai dute porogatu  
enganatu zirela.

Euskara, euskara,  
ialgi hadi kanpora.

Orai dano egon bahiz  
inprimitu bagerik  
hi engoitik ebiliren  
mundu guzietarik.

Euskara, euskara,  
habil mundu guzira.

## **LILI BAT**

Sarrionaindia - Laboa

Lili bat

hartu

eta hostoz hosto

erantzi

eta harek zu ere

amets

eta harek zu ere

erantzi

eta hostoz hosto

hartu

lili bat



## LORETXOA

Median larrartean  
aurkitzen da loretxo bat  
aurrean umetxo bat  
loretxoari begira.

Loreak esan nahi dio  
“umetxo aska nazazu,  
jaio naiz libre izateko  
eta ez loturik egoteko”.

Umetxoak ikusirik  
lorea ezin bizirik  
arantzak kendu nahi dizkio  
bizi berri bat eman,

orduan izango baitu  
indarra eta kemena  
orduan emango baitu  
ugari bere fruitua.

## **LORIAK UDAN IHINTZA BEZALA**

Indalecio Bizkarrondo - Bilintx

Loriak udan ihintza bezela maite det dama gazte bat,  
hari hainbeste nahi diodanik ez da munduan beste bat;  
inoiz edo behin pasatzen badet ikusi gabe aste bat,  
bihotz guztira banatutzen zait halako gauza triste bat.

Neskatxa gazte, paregabea, apirileko arrosa,  
izarra bezin dizdizaria, txoria bezin airosa;  
oraintxen baino gusto gehiago nik ezin nezakeen  
goza; zorionian ikusten zaitut, nere bihotzak, hau  
poza!

Ez al didazu antzik ematen nik zaitudala nahiago,  
ai, marinela gau ilunean izarra baino gehiago?  
Nere ondoan zauzkadalako pozez zoraturik nago;  
zu ikusteak alegatu nau, triste nengoen lehenago.

Nik hainbat inork nahi dizunikan arren ez zazula uste,  
nere begiak beren aurrean beti desio zaituzte;  
eguzkirikan ikusi gabe txoria egoten da triste,  
ni ez nau ezerk alegatutzen zu ikusteak hainbeste.

Aurpegi fina, gorputza berriz ez dago esanikan,  
hizketan ere grazi ederra ezer ez duzu txarrikan;  
mundu guztia miratuta ere zu bezelako damikan,  
agian izan liteke baina ez dut sinisten denikan.

Nere betiko pentsamendua nere kontsolagarria,  
zu gabetanik ezin bizi naiz, esaten dizut egia;  
zu bazinake arbola eta ni baldin banintz txoria,  
nik zu zinakeen arbola hartantxe egingo nuke kabia.

Amodiokan nere bihotza zureganuntza darama,  
herri guztian zeren daukazun neskatz bikainaren  
fama; beste fortunik mundu honetan ez dut desiatzen,  
dama: haur batek berak izan gaitzala ni aita eta zu  
ama.

Falta duenak logratutzeko hitz egitea txit on du,  
eta nik ere saiatu bihaut ote gitezken konpondu;  
gaur nagon bezain atrebitua sekulan ez naiz egondu,  
hargatik golpez galdetzen dizut nerekin nahi zun  
ezkondu.

Ezkondutzeak izan behar du preziso gauza txarren  
bat! Hala esaten ari zait beti nere kontsejatzaille bat;  
halaxen ere haren esanak oso utzirik alde bat,  
ongi pozikan hartuko nuke zu bezelako andre bat.

Zerorrek ere ongi dakizu aspaldi hontan nagola  
zuregatikan penak sufritzen, baina ordea hau nola!  
Halaxen ere nigana ezin bigundu zaitut inola,  
ni zuretzako argizaia naiz, zu neretzako marmola.

Nere bihotza urtzen dihoa es da ez da misterio:  
penaren kargak estutu eta zumua kendutzen dio;  
begiak dauzkat gau eta egun eginikan bi errio,  
beti negarra dariotela zu zerala medio.

Zu zeralako medio baldin joaten banaiz lur azpira,  
gero damua eta malkuak alferrik izango dira;  
behin joanez gero hoiien birtutez berriz ez niteke jira,  
hori gertatu baino lehenago zazu nitaz kupida.

## **MARITXU NORA ZOAZ**

Herrikoia

Maritxu nora zoaz eder galant hori?  
Iturrira Bartolo nahi badezu etorri  
Iturrian zer dago? Ardotxo txuria  
Biok edango degu nahi degun guztia.

Maritxu, zuregana biltzen naizenean,  
poza nabaritzen det nere barrenean  
Bartolo, nik ere det atsegin hartutzen  
ur bila noanean banauzu laguntzen

Maritxu, lagunduko dizut gaur mendira,  
ur fresko eder bila hango iturrira.  
Iturri eder hortan dagon ur garbiak,  
Bartolo, alaituko dizkizu begiak.

Maritxu, nere aurrez ez jarri serio  
zuri dizudalako zenbait amorio.  
par irri gozozkoa egiten badezu  
bihotza atseginez betetzen didazu.

Maritxu, baldin asmo badezu ezkontzia,  
lendabiziko nintzaz oroitu zaitia.  
Zure mende jartzen naiz denbora guziko,  
Bartolorekin gaizki ez zera biziko.

## MENDIAN GORA

Mendian gora haritza  
ahuntzak haitzean dabilta  
itsasoaren arimak dakar  
ur gainean bitsa.  
Kantatu nahi dut bizitza  
usteltzen ez bazait hitza  
mundua dantzan jarriko nuke  
Jainkoa banintza (2)

Euskal Herriko tristura  
soineko beltzen joscura  
txori negartiz bete da eta  
umorez hustu da.  
Emaidazue freskura  
ura eskutik eskura  
izarren salda urdina edanda  
bizi naiz gustura (2)

Euskal Herriko poeta  
kanposantuko tronpeta  
hil kanpaiari tiraka eta  
hutsari topeka.  
Argitu ezak kopeta  
penak euretzat gordeta  
goizero sortuz bizitza ere  
hortxe zegok eta (2)

Mundua ez da beti jai  
inoiz tristea ere bai  
baina badira mila motibo  
kantatzeko alai.  
Bestela datozen penai  
ez diet surik bota nahi  
ni hiltzen naizen gauean behintzat  
egizue lo lasai. (2)

## **NAFARROA ARRAGOA**

X. Lete

Nafarroa, arragoa, argiaren pausaleku  
haizearen ibil-toki zabal, hesirik gabea.

Nafarroa, arragoa, sua eta ura,  
kondaira urratu baten oihartzun oihukatua.  
Amets bat baino gehiago, ez oparotasun osoa:  
nahiaren eta ezinaren burukatoki ekaitzez betea.

Nafarroa, arragoa mahats eta gari  
maitasun eta gorroto gezur eta egia gurea.  
Nafarroa, arragoa lur beroen sabel emankorra  
eta goiko mendi hotzen mendetako loa.

Nafarroa, Nafarroa zuhur eta eroa,  
lurrik maitatuena, hormarik gabe utzitako etxea:  
erreka gardenen negarrez ibai lodietara  
ixurtzen ari den odol bustikorraren iturri bizia.

Nafarroa, arragoa izen bat eta oinarri  
eta oinaze eta bidean zure bila ibiltzea ...  
Pinudiek usaintzen dituzten  
harri txigorrezko bideetan gora  
o, Nafarroa, Nafarroa betikoa.

**NERE AMAK BALEKI /  
ZIBILLAK ESAN NAUTE**

J. M. Iparagirre

Zibillak esan naute biziro egoki  
Tolosan behar dala gauza erabaki  
Giltzapian sartu naute poliki poliki  
negar egingo luke nere amak baleki.

Jesus tribunalian zutenian sartu  
etzion Pilatosek kulparik billatu.  
Neri ere arkitu ez dirate barkatu  
zergatik ez dituzte eskuak garbitu.

Kartzelatik aterata fiskalen etxera  
abisatu ziraten joateko berehala  
Ez etortzeko gehiago probintzi honetara  
orduan hartu nuan Santander aldera.

## **NERE SENTIMENDUA**

Kaskazuriren anaiak

Nere sentimendua nahi det deklaratu:  
Ameriketan nago hau ezin ukatu; (2)  
hemen eginagatik ondo gobernatu,  
horkuaz egiten naiz asko akordatu.

Honuntz etorri nintzan utzirikan ama,  
anai-arrebak eta familia dana; (2)  
egitiagatikan desio nuena,  
geroztik triste nago, ai! nere barrena.

Hamazazpi urtetan banuen segira:  
neska gazte guztiak neroni begira; (2)  
lurrik ikutu gabe, gorputzari jira,  
orduako arintasunak asentatu dira.

Gorputz ederra nuen, dantzari arina,  
bainan ez da izaten betiko egina; (2)  
orain eginagatik hemen ahalegina,  
ez gera libertitzen orduan adina.

Horko bizimoduaz oso aspertuak,  
onerako ziraden gure desiuak; (2)  
orain etxera berriz emanik pausuak  
hemen bizi gerade erdi-mudatuak.

Despedida dijua sei bertso hoiekin,  
anaia konformatu horrenbesterekin; (2)  
nere gustua hau da, nahi badezu jakin:  
beste horrenbeste jarri, aio Joxe Juakin (2)



## **OI AMA EUSKALHERRIA**

Testua: Etxahun Iruri - Doinua: Herrikoia

Anaia etxen da ezkuntü,  
bortxatü niz orai juaitera.  
Ene ophilaren egitera, Pariserat banuazü.

**Oi ama Euskalherri goxua,  
zütarik hürrün ni trixterik banua,  
Adios ene etxondua, adios Xiberua.**

Pariseko bizitzia, lan khostüz irus baguatzü  
hargatik berantzen zitadazüt,  
zure berriz ikhustia.

**Oi ama Euskalherri goxua,...**

Bena denbora da llabürxko  
Othoi ama emtzün nezazü  
Xokho bat haita izadazüt  
Azken egin horientako

**Oi ama...**

## **OI GU HEMEN**

### **Oi gu hemen, bidean galduak (3) heriotz minez.**

Gizonen itzala luzea  
negarrez, haizea gauean  
arbolak, erroak airean  
heriotza da.

### **Oi gu hemen...**

Pobreak kalean bilutsik  
barnea esperantzik gabe  
doinua, basoko tristura  
ilunabarrez.

### **Oi gu hemen...**

Nundikan ezinaren mina  
zergatik errekan iluna  
egurra, kolpeka landua  
bide hustuak.

### **Oi gu hemen...**

## **OILAR HARROXKOA**

Lurdes Zubeldia

Goizean goiz lehena da,  
iluntzean beti azkena,  
oilar harroxko du izena  
uste delako dela hoberena.  
Metro bat luzatuz lepoa  
ixiltzen ditu beste oilarrak  
dardaraz omen kanpanttorrak  
dio espantu ponpoiloak

Kurruku goizean  
kukurruku eguerdian  
kukurruku iluntzean  
bai aspergarria oilar harroxkoa

Amona kuluxkan zegoelako  
saltoka esnatu du oilarrak  
leihotik erratza lepora  
geroztik gelditu da lepu okerra

Lepu okerra eta marranta  
ixildu zaigu fanfarroia  
Oilandak ere poztu dira  
aukera dutelako ta armonia

Kukurruku goizean,  
kukurruku eguerdian  
kukurruku iluntzean  
kukurruku bat atsegina dela oilar sinfonia

## **PELLO JOXEPE**

Herrikoia

Pello Joxepe tabernan dala  
haurra jaio da Larraulen (2)  
etxera joan da esan omen du:

-Ez da neria izanen,  
beraren amak topa dezala  
haur horrek aita zein duen.

Hau pena eta pesadunbria!  
Senarrak haurra ukatu (2)  
Pello Joxepe bihotz neria  
haur horrek aita zu zaitu  
haur horrentzako beste jaberik  
ezin nezake topatu.

Zure semia besuan daukat  
senarra aldamenian (2)  
orain denborik eztaukat eta  
zuazkit ordu onian  
neronek abisatuko zaizut  
garaia datorrenian.

Fortunoso nintzela baina  
ni naiz fortuna gabia, (2)  
abade batek eraman dizkit  
umea eta andria:  
haurra berea bazuen ere  
andrea nuen neria.

Patzientzia hartu bihar da  
munduan Pello Joxepe, (2)  
andria ere zuria izanda  
haurra bestena diote  
gizonen faltan igarotzen da  
basoan zenbait larrarte.

## **PRIMADERAKO LILIAK**

Primaderako liliak  
Goizik ziren loratuak,  
Urte hartan gertatu zen  
Pazko erramu baino lehen.

**Gaituzte ezkontarazi  
Maite ninduzun hain gutti  
Ezkontarazi gaituzte  
Ez zintudalarik maite.**

Ginuelarik elgarri  
Eman biziko uztarri.  
Ezkiak zeuden ixilik  
Nik ez baitakit zergatik.

**Gaituzte ezkontarazi...**

Ez zuten egin boieran  
menturaz ziren Erroman;  
Ez ziren gure lekuko  
Ez izanen bataioko.

**Gaituzte ezkontarazi...**

Nonbait balinbada zeru  
Gure haurra da aingeru  
Aingeru zeruan bainan  
umerik ez ohantzean.

**Gaituzte ezkontarazi...**

Bihotza hotzez kaskaran  
nago geroaren menturan.  
Etor bedi primadera  
kanpoak diton berriz lora.

Gaituzte ezkontarazi  
elgarregin behar bizi;  
Ezkontarazi gaituzte  
Behar dugu elgar maite

## **PRIMA EIJERRA**

Herrikoia

Prima eijerra  
zütan fidatürük,  
hanitx bagira  
oro tronpatürük.  
Enea zirenez  
erradazüt bai ala ez,  
bestela banoa  
desertiala,  
nigarrez hurtzera.

Desertiala  
joan nahi bazira,  
arren zoaza,  
oi, baina, berehala!  
Ez zitiala jin  
harzara nigana,  
bestela gogoa  
dolütüren zaizü,  
amoros gaixoa.

Nitan etsenplü  
nahi dianak hartü,  
ene malürak  
parerik ez beitü.  
Xarmangarri bat nik  
beinian maitatü,  
fidatü, tronpatü...!  
Seküla jagoiti  
ikusi ez banü.

Mintzo zirade  
arrazoi gabetarik  
ez düdala nik  
zur' amodiorik.  
Zü beino lehenik  
banian besterik,  
maiterik, fidelik.  
horrez ez dereizüt  
egiten ogenik.



## **SALAMANKARA**

Herrikoia

Ttiki-ttikitik aitak ta amak fraile ninduten nonbratu  
bai eta ere Salamankara estudiante bidaldu.  
Salamankara nindoalarik, bidean nuen pentsatu  
estudiante tunante baino hobe nuela ezkondu.

Ostatu xume polit batean gosez gelditu bainintzen  
neska xarmant bat ari zitzaidan mahainean  
zerbitzatzen.  
Bergia kartsu, ezpaina lore, enekin aise mintzatzen  
aingeru hori ordu berean ene bihotz barnean zen.

Hitz erdi batez maite nuela erran nion belarrira  
baina, gaixoa, herabetua ihes joan zen kanpora.  
Ez ahal nauzu, izar ederra, kondentatzen infernura!  
Ez da sekulan ene gogotik histuko zure itxura.

Aita Jainkoak egin banindu zeruetako giltzari  
azken orenean jakinen nuen atea nori ireki.  
Lehenik aitari, gero amari, gero anai-arrebari,  
ta azken orduan isil-isilik nire maite politikari.

## **TOPA DAGIGUN**

Testua: J. Sarasua - Doinua: Ukraniako kantu bat.

### **Errioxar Baigorriko Bakio nahiz Getariko Topa dagigun eta bakean bizi gaitetzen betiko. (2)**

Umeak arretaz horni, gazteei hitza eskeini.  
Gaztetxoago eta haurrago,  
izan gaitezen geroni. (2)

Ez uka amonei hitzik, entzun agureei pozik.  
Zaharra ez da izandakoa luzaroan dena baizik. (2)

### **Errioxar Baigorriko Bakio naiz Getariko...**

Hierarkia da lehorra harremana emankorra.  
Errespetuan dago gordeta,  
emakumeen altxorra. (2)

### **Errioxar Baigorriko Bakio nahiz Getariko...**

## **TRISTE BIZI NAIZ ETA**

Bilintx

Triste bizi naiz eta hilko banintz hobe  
badaukat bihotzean hainbat atsekabe.  
Maite bat maitatzen det bainan haren jabe  
sekulan izateko esperantza gabe.

Nire bihotz gaixoa penatua dago  
ezin egon liteke ai penatuago.  
Pasatzen ditudala aspaldian nago  
eguna triste eta gaua tristeago.

Nere maitatua da guztiz dama fina  
bihotz onekoa ta ondo hitz egina.  
Bentaja guztiakin zeruak egina  
mundua pasatzeko laguna atsegina.

Bihotz baten lekuan mila banituzke,  
zuretzako maitia izango lirazke.  
Baina milan lekuan bat besterik ez det  
har zazu ba maitia bat hau mila bider.

Nere maite polita nola zera bizi?  
Zortzi egun hauetan etzaitut ikusi.  
Uste det zabilzala nigandik igesi  
ez didazu ematen atsekabe gutxi.

## **TXANTXIBIRI**

Herrikoia

Txantxibiri, txantxibiri gabiltzarian Elorrioko  
kalian,  
hamalau atso tronpeta jotzen, zazpi astoren gainian.

Astoak ziren txiki-txikiak, atsoak, berriz, kristonak!  
Nola demontre konpontzen ziran  
zazpi astoren gainian (2).

Saltzen, saltzen, txakur txiki baten karameluak,  
Está muy bien! esaten du konfiteroak (2).

Cuando vamos a Otxandiano karnabal egunian,  
comeremos chocolate sonbreru kopa altian.

## **TXORIA TXORI**

Testua: J. Artze - Doinua: M. Laboa

Hegoak ebaki banizkio neria izango zen  
ez zuen aldegingo (2)

Bainan honela ez zen gehiago txoria izango (2)

Eta nik txoria nuen maite,  
Eta nik, txoria nuen maite.  
Lala lala...

## **TXORIÑO A NORAT HOA**

Herrikoia

Txoriñoa, norat hoa  
bi hegalez airian?  
Espainiarat joaiteko  
elurra duk bortian.  
Joanen gaituk alkarreki  
hura urtu denian.

San Josefaten ermita  
desertuan gora da.  
Espainiarat joaitean  
hau da ene pausada.  
Gibelerat so egin eta  
hasperena ardura.

Hasperena, habil, hoa,  
maitearen bortara.  
Habil eta erran izok  
nik igortzen haudala.  
Bihotzean sar hakio,  
hura, eni bezala.

## **URTXINTXA**

Testua eta doinua: Manex Pagola

Urtxintxak oihanian, jauzika  
aldaxkatik aldaxkara...  
Zuk erradazu, ama, zendako  
ez diren erortzen lurrera?...

**Nik ere nahi nuke izan urtxintxa bezala  
Hain gora, hain trebe, izateko libre...**

Urtxintxak oihanian, zintzilik,  
buruz behera buztanetik...  
Zuk erradazu, ama, zendako,  
ez duten buruko minik?...

**Nik ere nahi nuke izan urtxintxa bezala...**

Urtxintxak oihanian, karruxkaz,  
neguko bildu intzaurrekin...  
Zuk erradazu, ama, zendako,  
ez dezakedan egin berdín?...

**Nik ere nahi nuke izan urtxintxa bezala...**

## **XALBADORREN HERIOTZEAN**

X. Lete

Adiskide bat bazen orotan bihozbera  
poesiaren hegoek sentimenduzko bertsoek  
antzaldatzen zutena.

Plazetako kantari bakardadez josia  
hitzen lihoa iruten bere barnean irauten  
oinazez ikasia...

**Non hago, zer larretan Urepeleko artzaina  
mendi hegaletan gora oroitzapen den gerora  
ihesetan joan hintzana (2)**

Hesia urraturik libratu huen kanta  
lotura guztietatik gorputzaren mugetatik  
aske sentitu nahirik.

Azken hatsa huela bertsoarik sakonena  
inoiz esan ezin diren estalitako egien  
oihurik bortitzena...

**Non hago...**



## **XARMENGARRIA ZIRA**

Herrikoia

Xarmengarria zira, eder eta gazte,  
ene bihotzak ez du zu baizikan maite,  
bertze zenbait bezala, ote zira libre?  
Zurekin ezkontzeaz dudarik ez nuke.

Xuri gorria zira, arrosa bezala;  
profetak ere dira mintzo hola hola.  
Arabera bazinu gorputza horrela,  
iduriko zinuen... zeruko izarra.

Oi, maitea, zatozkit, plazer duzunean,  
nehork ikusi gabe, ilhun-nabarrean;  
lagun bat badukezu joaiteko bidean,  
hark ezarriren zaitu trankil bihotzean.

Plazer eginen duzu, ixiltzen bazira,  
haur iñorantak hola tronpatzen baitira.  
Ez da enetzat ina holako segida...  
bertzalde zure baitan ez naiteke fida.

Adios beraz orai, ene arraroa,  
hori dela medio herritik banoa;  
bihotza trixte eta kexuan gogoia,  
beti jarraikiren zait zur' amodioa.

## **XOXOAK**

Herrikoia

Xoxoak galdu du burua,  
burua, xoxoa, gaixoa!  
Nola kanta, nola xirula, nola kanta xoxoak!

Xoxoak galdu du begia,  
Burua, begia, xoxoa gaixoa!  
Nola kanta, nola xirula, nola kanta xoxoak!

Xoxoak galdu du lepoa  
Burua, begia, lepoa, xoxoa gaixoa!  
Nola kanta, nola xirula, nola kanta xoxoak!

Xoxoak galdu du mokoa  
Burua, begia, lepoa, mokoa, xoxoa gaixoa!  
Nola kanta, nola xirula, nola kanta xoxoak!

Xoxoa galdu du hegala  
Burua, begia, lepoa, mokoa, hegala, xoxoa gaixoa!  
Nola kantan, nola xirula, nola kanta xoxoak!

Xoxoak galdu du buztana  
Burua, begia, lepoa, mokoa, hegala, buztana,  
xoxoa gaixoa!  
Nola kanta, nola xirula, nola kanta xoxoak!

Xoxoak galdu du bihotza  
Burua, begia, lepoa, mokoa, hegala, buztana,  
bihotza, xoxoa gaixoa!  
Nola kanta, nola xirula, nola kanta xoxoak! (2)

## **XURXURI BATEN GAINEAN**

Testua eta Doinua: Manex Pagola

**Xurxuri baten gainean xoriak,  
kantatzen du, kantatzen du,  
Xurxuri baten gainean xoriak,  
kantatzen du, biziari.**

Xoriek ez dakite mundu huntan,  
zer gertatzen den:  
Hamar jendetarik sei,  
Nola gosearekin dauden.  
Bainan guk badakigu,  
ta hori aski zauku...

**Xurxuri baten gainean xoriak, ...**

Xoriek ez dakite, gizon onak  
preso badirela,  
eta Euskadin ere  
Euskaldunak hortan garela.  
Bainan guk badakigu,  
ta hori aski zauku...

**Xurxuri baten gainean xoriak,...**

## **ZAZPIAK OIHAL BATETIK**

Testua: Xalbardin - Doinua: Unsain

Mundu guztiak aditutzen du euskaldunaren negarra  
Alde batera nahiago nuke ez banintz hemengotarra.

**Enpeinatzea ez bada libre  
alferrik dugu indarra,  
Hau da txoriak gari tartean  
goseak egon beharra.**

Antzerki hontan lau pertsonaia ta jokalaria bakarra.  
Arbolak berak erakusten du hostoa eta adarra.

**Enpeinatzea ez bada libre...**

Sutan pizturik, darrai oraindik sugai berriz lengo  
gera, Oharkabea ez zen mintzatu Txirrita poeta  
zaharra.

**Enpeinatzea ez bada libre...**

Zazpi ahizparen, gai den oihala, ebakirikan erditik,  
Alde batera hiru soineko, utzirikan lau bestetik.

**Guraiziakin bereizi arren,  
bakoitza bere aldetik,  
Ezagutzen da jantzi direla,  
zazpiak oihal batetik.**

Oihal bera da gure jantzia, sortu gintuzten unetik,  
Ez du munduak kemenik sortu kentzeko gure  
soinetik.

**Guraiziakin bereizi arren,... (2)**

## **ZENBAT GERA**

**Zenbat gera? lau, bat,  
hiru, bost, zazpi.  
Zer egin degu, ezer ez,  
zer egiten degu, alkar jo  
zer egingo degu, alkar hil.**

Gure asmoak, esperantzak,  
herria, askatasuna,  
justizia, pakea,  
egia, maitasuna,  
mitoak, hitz hutsak.

### **Zenbat gera...**

Hori ez, hori ez, hori ez,  
Hori ez, hori ez, hori ez...

## **ZEZENAK**

Herrikoia

Dira, dira, zezenak dira  
buztana motza,  
adar zorrotza  
harrapatzen bazaitu,  
harrapatzen bazaitu,  
jo ta bertan hilko zaitu  
jo ta bertan hilko zaitu.

Dira, dira,  
zezenak dira  
bel-beltzak dira  
harrapatzen bazaitu,  
harrapatzen bazaitu,  
jo ta bertan hilko zaitu.

## **ZURE BEGIEK**

Herrikoia

Zure begiek, ene maitia  
badute biek dirdir ezta.

Zeruko lore miresgarriak  
izarren pare zoragarriak.

Gazte gaztia zira oraino  
egun guztia nago zuri so.

Zure begiek zoratzen naute  
eta guztiek nahi luzkete.

Gaua delarik mundurat jausten.  
Jauna zerutik da urrikaltzen.

Zure begien gozoño hori  
egon dadien eder ta garbi.

Ene nahia ziñez handia  
zu izaitia nere andria.